

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2005EKO ASTE SANTUA

2005eko Aste Santuan eta Pazko-astean bidaiarien sarrerak %4 gehitu dira eta igaro dituzten gauak %4,8

Aste Santuko ostegunetik larunbatera hoteletan %81etik gorako okupazioa izan da.

EUSTATen datuen arabera, Aste Santuko astelehenetik Pazko-asteko larunbatera 57.948 bidaiari izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko **hoteletan**. Bidaiarien sarrerak %4,0 gehitu dira, hau da, aurreko urtean baino 2.234 pertsona gehiago izan da.

Bestalde, bidaiariak 114.471 gau igaro dituzte; hots, 2004. urteko aldi berarekin erkatuta 5.264 gau gehiago igaro dituzte (%4,8tik gora).

Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldi kopurua, aurreko urteekin erkatuta, hobetu egin da; hain zuzen, aurreko urtean bidaiari bakoitzak batez beste 1,96 egun egin zituen eta aurtengo Aste Santuan 1,98 egun.

Plazen okupazioa aurreko urteko maila baino %2,6 handiagoa izan da. 2004ko Aste Santuan okupazio maila %46,82koa izan zen, eta 2005eko Aste Santuan %48,05ekoa.

4.445 bidaiarik **nekazalturismoak** aukeratu dituzte, 2004ko aldi berean baino %14,9 gehiago. Guztira 13.673 gau igaro dituzte nekazalturismoetan, aurreko urtean baino %2,3 gehiago. Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldia gutxitu delako eman da sarreren eta igarotako gauen erritmorik gabeko bilakaera hori; izan ere, aipatu batez besteko egonaldia aurreko urtearekin erkatuta 0,38 portzentaje-puntu gutxitu da. Plazen araberrako okupazioa ere murriztu da (%4,0an) **nekazalturismoen** sektorean, plazen eskaintza handiagoa izan delako.

1. taula: 2004-2005 aldiko Aste Santuko eta Pazko-asteko emaitzak

	HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK				NEKAZALTURISMOA			
	2005	2004	D	Δ%	2005	2004	D	Δ%
GAUALDIAK	114.471	109.207	5.264	4,82	13.673	13.369	304	2,27
BIDAIARIEN SARRERAK	57.948	55.714	2.234	4,01	4.445	3.868	577	14,92
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,98	1,96	0,02	0,78	3,08	3,46	-0,38	-11,00
BETETZE-MAILA GELAKA	48,05	46,82	1,22	2,61	43,54	45,36	-1,81	-4,00

Iturria: EUSTAT

Aste Santuko jaiegun nagusienetan (ostegun, ostiral eta larunbatean), eta aurreko urteko egun berberekin erkatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko **hoteletan** egon den bidaiari kopurua %17,6 gehitu da.

Sektore horretan 48.458 gau igaro dituzte, hau da, aurreko urtean baino %16,9 gehiago.

Batez besteko egonaldia 2,15 egunetik 2,13ra jaitsi da jaiegun horietan. Alabaina, plazen arabera okupazioak portzentaje-puntu batzuk gehiago ditu: 2004. urtean %71,6koa izan zen eta 2005ean %81,38koa Euskal Autonomia Erkidego osoan; gainera, kontuan hartu behar da hotelek plaza gehiago eskaini dituztela. Araba eta Gipuzkoako hotelek %90etik gorako okupazioa izan dute egun horietan.

Hiru jaiegun nagusienetan %13,2 gehitu da **nekazalturismoak** aukeratu dituen bidaiarien kopurua, baina gaua bertan igarotzea erabaki dutenen kopurua %0,9 gehitu da. Sektore honetako batez besteko egonaldia 3,84 egunetik 3,42ra jaitsi da eta, gainera, okupazio maila bost portzentaje-puntutan murriztu da Euskal Autonomia Erkidegoetako **nekazalturismoek** plaza gehiago eskaini dituztelako.

2. taula: 2004-2005 aldiko Aste Santuko jaiegun nagusienetako (OSTEGUN, OSTIRAL ETA LARUNBATEko) emaitzak

	HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK				NEKAZALTURISMOA			
	2005	2004	D	Δ%	2005	2004	D	Δ%
GAUALDIAK	48.458	41.465	6.993	16,90	6.636	6.575	60	0,90
BIDAIARIEN SARRERAK	22.698	19.301	3.397	17,60	1.938	1.711	226	13,20
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,13	2,15	-0,02	-0,93	3,42	3,84	-0,42	-10,94
BETETZE-MAILA GELAKA	81,38	71,66	9,72	13,56	84,20	88,64	-4,44	-5,01

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es